Sagardogintza Beran

OBENEA

Sagardoa aditu, eta Hernani, Astigarraga edo Usurbil etortzen zaizkigu gogora, arrunt edari gipuzkoarra bailitzan. Gaur egun, hiru herri horiek biltzen dute sagardo-produkzioaren kopuru handiena, eta jendearen aitzinean irekiak dauden sagardotegien arrakastaren arduradun nagusiak dira. Nafarroan, errate batera, bortz sagardotegi biltzen ditu sagardo-ekoizleen elkarteak, eta apenas ekoizten dute 300.000 litro urtean.

Baina hori ez da horrela izan beti. Gure inguruan sagardoa ohiko edaria izan da orain hamarkada batzuk arte, eta aunitz ziren sagardoa ekoizten zuten baserriak. Azkeneko urteotan berriz ere berreskuratzen ari bada ere, ez da garai bateko sagardirik ez ekoizpenik.

Julio Caro Barojak “De la vida rural vasca” liburuan aipatzen duenez, 1912 aldera, Berako hamar etxek irekitzen zituzten ateak sagardoa saltzeko, gaur egun ezagutzen ditugun sagardotegien gisara. 50. hamarkadaren ondar aldera, aldiz, etxerako baino egiten ez zuten tolare guti batzuk gelditzen ziren.

2006 eta 2007 urteen artean, Julio Caro Baroja museo etnografikoaren enkarguz Asier Agirresarobek, Luis del Barriok eta Josu Tellabidek egindako ikerlanaren arabera, Nafarroako iparraldean 30 tolare mantentzen ziren zutik. Datu horretatik erranguratsuena, ezbairik gabe, Berako argazkia da: 10 tolare mantentzen ziren 2007an, bertze edozein herriren datuak bikoiztuz. Herrian dugun kultur ondare aberatsaren adierazgarri dira.

Gaur egun, baina, tolare horietan ez ezik, bertzelako prentsa ttikiagoetan ere egiten da sagardoa hainbat baserritan. Sagarrik gehiena, baina, kanpotik erosi egin behar da, herriko sagardien kopuruarekin nekez egin baitaiteke sagardo anitzik.

Hauek dira, arestian aipaturiko ikerlanaren arabera, Beran zerrendatutako tolareak, eta horien ezaugarriak:

• **TXANBURRENEA** (Bidasoa karrikan): XIX. mendearen ondar aldean eraikia, aldaketa aunitz izan ditu. Garai batean, etxekoak ez ezik, inguruko etxe eta baserrietatik etortzen ziren sagardoa egitera. Erabilgarri dago.

• **TXURIOBAITA** (Altzateko plazan): XVIII. mendean eraiki izanen zen, seguru aski. 1916an etxea arruntean berreraiki zuten, eta tolarean ere aldaketa sakonak egin zituzten, eta 1945ean motorizatu egin zen. 1964a arte sagardoa egiten zen bertan. Tolare honetara ere inguruko etxeetatik ekartzen zuten sagarra sagardoa egiteko.

• **TELLETXEA** (Illekuetan): Badirudi etxearekin batera eraiki zela tolarea, XVIII. mendean. Tolare ikusgarria da, bi torloju dituena, eta harlauzez egina. Jatorrizko egurrezko egitura, burnezko bertze batengatik ordezkatu zuten, egungo nagusiaren aitatxik Uztaritzen erositakoa. 1964. urtera arte egon zen erabilgarri.



• **OBENEA** (Illekuetan): etxearekin batera eraikia, ziurrenera ere, XVIII. mendean. Jatorrizko tolarea berri batengatik aldatu zuten XX. mendearen hasieran. Telletxea etxekoa bezala, Simon Frères etxeko torloju bikoitzekoa da, Baionan erosia. Antzina, baserriaren ondoan dagoen Gaineko errotako ura baliatzen zen tolarea eragiteko. Oraindik sagardoa egiten da bertan.

• **MARTIÑENEKO BORDA** (Zian): 1880 urte aldera eraikitako tolarea da, eta garai hartako egitura mantentzen du, nagusiki. Oraindik ere sagardoa egiten da bertan.


MARTIÑEMEKO BORDA



BALKEZENEA

• **BALKEZENEA** (Dornakun): Etxearen gibeleko aldean zegoen tolarea baserriarekin batera eraiki zuten, XVIII. mendean. Tolare ikusgarria zen, parerik gabekoa inguruetan, eta molde klasikoko azkena.1977ra arte egin zuten sagardoa bertan, eta 1993an desmuntatu zuten, eta etxearen atarian paratu zuten, edergarri gisa.

• **SALDESBEREA** (Garaitarreta): Hau ere baserriarekin batera eraikia, XVIII. mendean. 1980ko hamarkadara arte egin zuten sagardoa bertan. Jatorrizkoa egurrezko bi torlojukoa zen, baina burnezko bakarrekoa paratu zuten haren ordez.

• **ERAUSTEA** (Garaitarreta): Baserriarekin batera eraikitako tolarea, XVIII. mendean. XX. mendearen hasieran egurrezko bi torlojuak burnezko bakarragatik aldatu zuten, Baionan erosia. 1987ra arte egon zen erabilgarri.

• **IRAZOKIBEREA** (Kaule): XVIII. mendean eraikia, baserriarekin batera. 1970era arte egon zen erabilgarri. Inguruko gehienen gisara, hau ere egurrezkoa zen jatorrian, baina burnezko bertze batengatik aldatu zuten.

• **MARITXENEA** (Kaule): Tolarea XIX. mende bukaerakoa da, eta bere ezaugarri nagusiak mantentzen ditu gaur egun ere, nahiz sabaian egindako lanengatik egituran aldaketa ttiki batzuk egin ziren. Burnezko torloju bakarra du.

Jon Abril Olaetxea

Argazki eta irudiak:
Julio Caro Baroja Nafarroako museo etnologikoa.

E.M.
ongi pasa bestak!
EMBALAJES MARTINEZ,S.L.
• Aserradero/Zerrategia
Pol. Industrial Zalain, 15 | 31780 BERA | Tel. 948 630 702 | Fax: 948 630 666